

MARTIN ORBE-REKIN SOLASEAN

Orain dela urte batzuz geroztik, zeanutar batek darama U.E.U.-aren Sekretari-tza. **Martin Orbe** deritzo. Eta harengana jo dugu aurtengo Udako Unibertsitateari buruzko berri bila.

P. y H.: Agur Martin. Gure irakurleek aurtengo U.E.U.-ari buruz zerbait jakin nahi lukete.


M.O.: VII. aldiz gertatuko denez, ezer handirik esatekorik ez dago. Dena euskara-raz egiten da, jakina. Baina euskara bera ikasterik ez da izango: ez D-mailan, eta ez B-mailan. Ikasketa horiek U.E.U.-tik atera egin behar direla iruditu zaigu. Ikaskai unibertsalak azalduko dira, hortaz, euskaraz; baina euskara bera, ez.

P. y H.: Ikastaldietan azalduko diren gaiak, ahoz bakarrik? Ala beroiei buruzko apunteak eta liburuak ere bai?

M.O.: Ahal den neurrian, irakasle bakoitzari bere ikastaldia izkribuz ekartzeko esaten zaio. Laz, horrela, 23 liburu pres-tatu ziren = Matematikaz (3), Fisika-As-tronomiaz (6), Kimikaz (3), Hizkuntzala-ritzaz (3), Medikuntza-Biologi-az (3), Geologi-az (1), eta beste lau liburu gehiago. Aurten, oraingoz behintzat, 18 li-buru berri espero ditugu = Fisikaz, Ma-tematikaz, Arteaz, Hizkuntzalaritzaz, eta abar.

P. y H.: U.E.U.-ko liburuak denak?

M.O.: Aipatu ditudan 23 eta 18 horiek, bai = U.E.U.-koak dira. Baina, horrez



gain, liburu-azoka egoten da han egu-nero, zabalik, eta euskal argitaratzaile guztien liburuak aurki daitezke gure ikas-tetxean.

P. y H.: Eta nork ordaintzen du hori guz-tia?

M.O.: Udaletxe guztiei egin diegu eska-bide bana; baina oraingoz ezin esan dai-teke nolako erantzuna izango dugun.

P. y H.: Bekarik ez?

M.O.: Zuzenean ez; gure bidéz, alegia, bekarik ez dago. Baina hori ikasleek berek eskatu behar dute, azkar, nork bere udaletxean = zortzi edo hamar mila pezta. Gure ustez, beka lortzerik badago udaletxe berrien bitartez.

P. y H.: Eta ikastaldia bera, nola?

M.O.: Gutxi gora-behera, beste urteetan bezala. Goizetan, hiru klase; arratsaldean, talde-lana, mintegietan. Eta arrásetan, hitzaldiak, kantaldiak, eta abar. Eta hori sailka: zientziak, Giza-zientziak, Hizkun-tza-Literatura, eta Natur-Zientziak. Lau sail. Baina aurten berrikuntza batzu egin ditugu; eta laborategi-lana egingo da, baita Kimika-pratikak eta Biologi-Saioak ere. Horrez gain, Irurtzun herriaren iker-lana egingo da, inkestak eta abar bertan burutuz. Horrez gain, eta ehungarren Einstein-i buruzko hitzaldi berezituak izango dira.

P. y H.: Eta haur txikiak dituztenak?

M.O.: Lasai egoteko. Haurtzaindegia izango da bertan.

P. y H.: Besterik zer?

M.O.: U.E.U. ez dela Uztailen hasten, eta ez bukatzen. Urte guztian barrena ari dira lanean talde batzu. Eta hauxe da U.E.U.-ak lortu duen gauzarik ederrena = udaz kanpo ere lan egitea.

U.E.U. 1978

(Radiografia gisa)

1. — Zenbat ikasle?

1976: 332 ikasle

1977: 522

1978: 545

1979: XX

2. — Bizkaitarrak nagusi = erdi-ttua

Bizkaitarrak % 48,-

Gipuzkoarrak % 36,-

Nafartarrak % 10,-

Ipartarrak % 4,5

Arabarrak % 1,5

3. — Gizasemeak = bi heren

Gizakumezkoak % 63,3

Emakumezkoak % 36,7

4. — Ezkongabeak urrundik na-gusi

Ezkongaiak % 79,5

Ezkonduak % 20,5

5. — Euskaldun-berriak = laur-den bat

Betidaniko euskaldunak % 74,3

Euskaldun-berriak % 25,7

6. — Gazteak urrundik nagusi

31 urtetik behera % 74,-

31 urtetik gora % 26,-

7. — Irakasleen artean, gizasemeak gehien


Gizonezkoak % 66,-irak.

Emakumezkoak % 44,-

8. — Liburu berri

23 berri presentatu ziren.

Euskara hutsez, noski, U.E.U.-ak egiten duen guztia bezala.



UNIVERSIDAD VASCA DE VERANO

U.E.U. 1979 Iruñea

Uztailaren 16-tik 28-ra

Non eta nola izena eman

1. - Nafarroan
Arturo Kanpion Ikastola
C/Compañía, 25
Iruñea

2. - Bizkaian
U.E.U. Idazkaritza
Alameda Urquijo, 18, pral. izda.
Bilbo

3. - Araban
Manuel Iradier, 8. 1.
Gasteiz

4. - Gipuzkoan

Elhuyar
San Marcial, 26
Donostia

5. - Iparraldean
Ikas
15, rue Port-Neuf
64100, Baiona

U.E.U. 1979 Iru-
ñea
Zenbat?



Matrikulaketa	2.000 Pta.
Ostatu osoa (ohea + gosaria + bazkaria + afaria)	8.000 Pta.
Guztira	10.000 Pta.

Astebetetz bakarrik joan nahi izanez gero (nahiz U.E.U.-ak egonaldi osoa nahiago izan):

Matr. :	2.000
Ost. :	4.500
Pta. :	6.500

U.E.U. 1979 Iru- ñea

Lau ikas-sail nagusi

1. - Fisikia-Kimika-Matema-
tika
Eguzkitiko energia
Satsudura.

Memanika = analitikoa eta
guntikoa.
Bariantz-analisia.

2. - Giza-zientziak
Semiologia.
Ikus-entzunezko metodoak.
Boterea.
Irakaskuntza elebiduna.
Zuzenbide-arazo batzu.

3. - Hizkuntza eta Litera-
tura
Fonologiaren matematikuntza
Hizkuntzen standardizazioa
Semiotika eta literatur-kritika
Hizkuntzaren historia
Lexikologi-arazoak.

4. - Natur-zientziak eta Me-
dikuntza
Laborategi-probak
Medikuntza
Nortasunaren psikologia
Osasunaren arazoak

Irakasleen artean, izen hauek aipa daitezke = K. Santamaria, A. Irigoien, P. Etxenike, M. Azkarate, Kortadi-ren taldea, Elhuyar-taldea, Mikel Lasa, P. Alkain, L. Bandres, Txillardegi, P. Garmendia, A. Eguzkitza, M. Aizpurua, J.M. Txurruka, eta abar.

